BIZKAIKO ELKARRERAGINGARRITASUN-PLATAFORMA

Dokumentua – Sarrerako/Irteerako datuak

Zerbitzua: BFArekiko zerga-betebeharren ziurtagiriaren kontsulta

*Administrazio elektronikoaren atala / Sección de la administración electrónica*
*[www.bizkaia.eus/laguntzaile-interoperabilidad](http://www.bizkaia.eus/laguntzaile-interoperabilidad)*
*94 406 7777*

## DESKRIPZIOA

Zerga-betebeharrak kontsultatzeko Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintzen duen web-zerbitzu honen bidez, pertsona jakin bati buruzko informazioa eskuratu daiteke.

Zerbitzua ZENTSUAK KONTROLATZEKO ETA UDAL ZERGAK KUDEATZEKO ZERBITZUAn zerga-betebeharren ziurtagiria kontsultatzeko dagoen zerbitzuarekin konektatuko da; izan ere, zerbitzu horrek du datuak finkatzeko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiaren barruan.

## NOTA GARRANTZITSUA

Este servicio de Estar al corriente de Obligaciones Tributaria verifica que se cumplen los requisitos establecidos por el
Zerga-betebeharrak kontsultatzeko zerbitzu honek Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2009 FORU DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia onesten duena, bere 26.artikuluan agertzen diren betekizunak ziurtatzen ditu. Alegia:

- Betebeharra betetzeko orokorrean exijitzen diren aitorpenak aurkeztu izana.

- Ez edukitzea Ogasuna eta Finantzak Sailarekin inolako zerga zor ez zehapenik betearazte aldian. Salbuespena: geroratuko, zatikatutako edo betearazpena etendako zorrak eta zehapenak.

Zerbitzu honen bitartez jasotzen den emaitza:

- Soilik pertsona batek zerga-betebeharrak BETETZEN DITUEN EDO EZ DITUEN BETETZEN aipatzen du
- EZ da inoiz Ogasunak igortzen duen 'ZERGA EGOERA ZIURTAGIRIA'rekin nahastu behar. Azken honetan, zorrez aparte, aitorpenen aurkezpen zehatz batzuen inguruan soilik informatzen du, eta beraz, EZ DU, inondik inora, zerga-betebeharrak betetzen diren ziurtatzen.

## ESKATUTAKO DATUAK

Zerbitzuak eskatutako datuak:

- **Titularraren identifikazio-dokumentuaren mota eta zenbakia** (IFZ/NANa/AIZa)
- Titularraren **izen-abizenak.**
- **Ziurtagiri mota**: Ziurtagiri mota: Kontsultaren helburua den ziurtagiriaren mota: 'DIRU-LAGUNTZAK' laguntza eta diru-laguntzetarako, 'KONTRATAZIOA' administrazio publikoarekin egiten diren kontratuetarako.

## EMAITZARI BURUZKO DATUAK

Zerbitzuak informazio hau itzuliko du:

- Ziurtagiri mota: Kontsultaren helburua den ziurtagiriaren mota: 'DIRU-LAGUNTZAK' laguntza eta diru-laguntzetarako, 'KONTRATAZIOA' administrazio publikoarekin egiten diren kontratuetarako.
- Dokumentu mota: Kontsultatutako dokumentu mota. Izan daitezkeen balioak:
  'IFZ' - identifikazio fiskaleko zenbakia
  'NANa' - nortasun-agiri nazionala
  'AIZa' - atzerritarraren identifikazio-zenbakia
- Dokumentu-zenbakia: Kontsultatutako dokumentuaren zenbakia
- Titularra: Kontsultatzen diren datuen titularra identifikatzen duten datuak
- Ziurtagiriaren jaulkipen-data: Ziurtagiria jaulki den eguna.
- Emaitza: Kontsultaren emaitza. Izan daitezkeen balioak:
  'B' - Bai, titularrak betetzen ditu zerga-betebeharrak
  'E' - Ez, titularrak ez ditu betetzen zerga-betebeharrak
  'O' - Okerra gertatu da eta titularra ez dago igorlearen sisteman (identifikatu gabe dago)
  'EE' - Eskabidea ezin da ebatzi une honetan
- Ez-betetzearen arrazoiak: Emaitza 'E' bada, bete gabeko betebeharrak eta/edo ez-betetzearen arrazoiak itzuliko dira eremu honetan.
- Okerraren arrazoiak: Emaitza 'O' bada, okerraren zergatia itzuliko da eremu honetan:
  - Okerreko IFZ
  - Okerreko kontrol-digitua
  - Ez datoz bat IFZ eta titularraren izena/abizenak

## ADIBIDEAK



RESULTADO ESPECÍFICO

| Tipo certificado | Tipo documento | Número documento | Nombre/Razón Social | Resultado |
| --- | --- | --- | --- | --- |
| CONTRATACION | NIF | F48681373 | | El titular SI cumple con sus obligaciones fiscales |

1 5

Tipo certificado: CONTRATACION
Fecha emisión certificado: 27/03/2018
Tipo documento: NIF
Número documento: F48681373
Nombre
Apellido 1
Apellido 2
Razón social
Resultado: El titular SI cumple con sus obligaciones fiscales
Motivo incumplimiento
Motivo error

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| CONTRATACION | DNI | 78928062C | | El titular no existe en el sistema del Emisor (no identificado) |

1

5

| Tipo certificado | Fecha emisión certificado | |
|---|---|---|
| CONTRATACION | 27/03/2018 | |
| **Tipo documento** | **Número documento** | |
| DNI | 78928062C | |
| **Nombre** | **Apellido 1** | **Apellido 2** |
| | | |
| **Razón social** | | |
| | | |

| Resultado | Motivo incumplimiento | Motivo error |
|---|---|---|
| El titular no existe en el sistema del Emisor (no identificado) | | Falta el Apellido 1 certificado |

BERTSIO KONTROLA

| | | |
|---|---|---|
| V.00 | Bertsio Originala | 2017/10/25 |
| V01 | NOTA garrantzitsua gehitzen da | 2020/03/05 |


*www.bizkaia.eus/laguntzaile-interoperabilidad*
*94 406 7777*
*Calle Diputación Kalea, 7 - 48008 BILBO/BILBAO*